



HEZKUNTZA SAILA  
Hezkuntza Sailburuordetza  
Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Educación  
Dirección de Innovación Educativa

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARITZAREN ZIRKULARRA,  
**IRALE PROGRAMAREN BERRI EMANEZ**  
ETA JARDUNBIDE-EPEAK JAKINARAZIZ.  
**2020-2021 ikasturteko udako ikastaroak (A eta E), eta H eta I ikastaroak.**

Zuzendari jauna/andrea:

2020-2021 ikasturterako, **Irale programaren barruan udako ikastaroetan (A eta E)** parte hartzeko deialdia zabalduko du Hezkuntza Sailak.

Deialdi hau ikastaro horiek egin nahi dituzten unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko eta itunpeko ikastetxe pribatuetako langileei bideratuta dago, oraindik euskaldundu gabe dauden langileak euskalduntzeko.

Izena emateko **epea ekainaren 9tik 19ra bitartean egongo da zabalik**, bi egunak barne.

Honekin batera, 2020-2021 ikasturteko udako ikastaroen (A eta E) araudia ere bidaltzen dizugu. Arretaz irakurtzeko eskatzen dizugu, bertan aurkituko baitituzu ikastaro horietan parte hartzeko xehetasun guztiak.

Bide batez, jakinarazi nahi dizugu 2020-2021 ikasturterako H eta I ikastaroen eskaintza ere zabalduko dugula. Izena emateko epea **irailaren 1etik 15era** bitartekoa izango da.

Honekin batera, deialdiaren proposamena bidaltzen dizugu, datorren ikasturterako prestakuntza-plana osatu ahal izan dezazuen.

Informazio guztia Hezkuntza Saileko Iraleren web orrian izango duzu eskuragarri:  
<https://www.euskadi.eus/educacion> euskera /

Besterik gabe, har ezazu nire agurrik zintzoena.

Gasteizen, 2020ko ekainaren 8an.

  
  
HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
**Lucia Torrealday Berruero**  
HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO  
ZUZENDARIA